

Irakurgaia

Entzun eta irakurri

Ingurumen-superheroia




Zeu ere ingurumen-superheroia!

Alkatea kezkatuta dabil herritarrek ingurumena zaintzen ez dutelako. Superheroiak behar ditu herritarrek ingurumena zaintzen ikas dezaten!

Izan nahi duzu superheroia? Bada, irakurri jarraibideok eta ekin misio garrantzitsu honi!

Zer behar duzun superheroia izateko:

- Ausardia: arazo askori egin beharko diezu aurre. Herritar batzuek, batez ere helduek, ez dute ezer egiten ingurumena zaintzeko, eta horiek konbentzitzen saiatu beharko duzu!
- Jantzera: superheroiak kapa eta aurpegiko mozorroa jantzita ibiltzen dira. Kamiseta eta praka beltz batzuen gainean, jantzi kapa eta jarri mozorro berdea aurpegian. Logo dibertigarri bat ere egin dezakezu kartoi mehe batean, kamisetan jartzeko. Adibidez:



Heldu da superheroia izateko ordua...

**Erakutsi herritarrei ingurumena zaintzen,
lau urratsetan:**

1 Zaindu herriko kaleak, parkeak eta lorategiak

Kaleak, parkeak eta lorategiak denonak dira. Ez zikindu kaleak eta zaindu paisaia.

2 Ura beti neurrian

Izaki bizidunok ura behar dugu bizitzeko. Beraz, ez da inoiz alferrik galdu behar.

**Urik behar ez duzunean,
itxi txorrotak!**

3 Birziklatu

Bota plastikoa edukiontzi horira, papera urdinera eta beira berdera. Birziklatuta, hondakin gutxiago sortuko dugu.

**Hondakin bakoitza bere
edukiontzirak!**

4 Hobe garraio publikoa

Esan gurasoei autoa etxean uzteko eta garraio publikoa erabiltzeko. Bestela, oinez edo bizikletaz ere joan daitezke. Horrela, gainera, ariketa fisikoa egingo dute!

**Lortu duzu? Bada, orduan...
ingurumen-superheroia zara!**



Ea ulertu duzun

1 Esan esaldi hauek egia (E) ala gezurra (G) dioten.

Alkatea kezkatuta dabil ingurumena dela eta. ☐

Herrian garbitzaileak behar dira. ☐

Superheroia izateko, ausardia behar da. ☐

Batez ere helduek zaintzen dute ingurumena. ☐

2 Herritarrek lau urratsetan ikasiko dute ingurumena zaintzen. Ordena itzazu urratsak 1etik 4ra. Jarri laukitxoetan zenbakia.

☐ Ura beti neurrian gastatu behar dugu. Inoiz ez da alferrik galdu behar.

☐ Birziklatzen badugu hondakin gutxiago sortuko dugu.

☐ Hobe garraio publikoa (autobusa, tranbia,...) erabiltzen badugu.

☐ Herriko kaleak, parkeak eta lorategiak zaindu behar ditugu.

